

Mendian gora haritza c1

Em C D Bm
Mendian gora haritza Ahuntzak aizean dabilta

Em C D C Em
Itsasoaren arimak dakar Ur gainean bitxa

G D C Bm
Kantatu nahi dut bizitza Usteltzen ez ba zait hitza

Em C D C Em
Mundua dantzan Jarriko nuke jainkoa banitza

Em C D Bm
Euskal herriko tristura Soineko beltzen joskura

Em C D C Em
Txori negartiz bete da eta Humorez hustu da

G D C Bm
Hemaidazue freskura Ura eskutik eskura

Em C D C Em
Izarren salda urdina edanda Bizi nahiz gustora

Em C D Bm
Euskal herriko poeta Kanpo santuko tronpeta

Em C D C Em
Hil kanpaiari tiraka eta Hutsari kolpeka

G D C Bm
Argitu ezak kopeta penak euretzat gordeta

Em C D C Em
Goizero sortuz bizitza ere Hortxe zegok eta

Em C D Bm
Mundua ez da beti jai Inoiz tristea ere bai

Em C D C Em
Bainan badira mila arrazoi Kantatzeko alai

G D C Bm
Bestela datozen penai Ez diet surik bota nahi

Em C D C Em
Ni hiltzen naizen gauean behintzat Eizue lo lasai